

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0008</p>	<p>Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistro eskaria</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Udalerrri bakoitzean Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Erregistro Orokor bat dago.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren titularrek, txakurra errolatuta dagoen udalerriko Arriskutsuak izan daitezkeen animalien Udala Erregistroan inskribatu beharko dute txakurra.

NORK ESKA DEZAKE?

Animalia horien titularrek, lege ordezkariak edo/eta betekizun hauek betetzen dituzten erakundeek:

- Adinez nagusia izatea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia edukitzea.
- Hirugarrenei eragindako kalteengatik erantzukizun zibileko aseguruua kontratatuta izatea egiaztatzea, 120.000,00 eurotik beherakoa izango ez den estaldurarekin).

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E004 Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa](#)

Dokumentazio pertsonala:

- NAN, Pasaporte, Gidatzeko baimena
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia.
- Izena emateko eskaria, HAZeko bulegoan eskaintzen den eredu espezifikoaren arabera.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza, 120.000,00 eurotik beherakoa izango ez den estaldurarekin, animaliak eragin ditzakeen kalteengatik sortutako erantzukizunerako, zainketarako beste pertsona bati laga bazaio ere.
- Poliza hori ordaindu izanaren ordainagiria.
- Txakur espeziearen erregistro orria. Eskariarekin batera entregatzen ez bada, lizentzia jaso eta hurrengo 15 egunetan entregatu beharko da. Alta Txakurren Erroldan - REGIA (Albaitariak emango du).
- Denbora gutxi lehenagoko albaitariaren ziurtagiria, animalien osasun egoera eta gaixotasunik edo bereziki arriskutsua bilaka dezakeen arazorik ez duela egiaztatzen duena, 3 hilabeteko antzinasuneko, gehienez ere.
- Animalien osasun kartilla.
- Txakurraren argazkia, koloretan, gorputz osokoa.
- **GESTIOAK EGITEKO BAIMENA** izapidea edo sinadura interesatua ez den pertsona batek egiten badu (Ordezkatutako pertsonaren NAN aurkeztu beharko da. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien lizentzia).

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Zerbitzuak eman edota udal jarduerak burutzeagatik sortutako prezio publikoak arautzen dituen ordenantza: Tarifen eranskina – L) epigrafea – E) atala

2017ko ekitaldia: 16,98 €.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [2014ko urriaren 29ko agindua, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntza esleitzeko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena \(EHAA, 235 zk., abenduaren 7koa\).](#) L epigrafea - E Atala
- [Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza \(2008/02/15 BAO, 33. zk.\).](#) 5 eta 18
- [6/1993 Legea, urriaren 29koa, Animaliak Babesteari buruzkoa \(1993ko azaroaren 15eko 220 zk.dun EHAA n argitaratua\)](#) 10
- [50/1999 Legea, abenduaren 23koa, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa](#) 5 eta 6
- [287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena](#) 9
- [101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa](#) 2, 11, 20 - 23

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskaria jaso eta dokumentazioa egiaztatu.

Datuak animalien erregistroan sartu.

Akreditazio karneta egin.

Dokumentazioa artxibatu.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Ez dagokio

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Udaltzaingoa - Udaltzaingoa

OHARRAK

-
- Animalia Amorebieta-Etxanon egon beharko da.
 - Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak leku publikoetan kontrolatzen dituzten pertsonak Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak (A.I.D.A.-A.P.P.) edukitzeko lizentzia pertsonala gainean eraman beharko dute, eta baita animalia dagokion Udal Erregistroan inskribatuta dagoela erakusten duen txartela ere.
 - A.I.D.A.-A.P.P. edukitzeko lizentziaren titularrak Erregistro horretan inskribatzeko eskaria egin beharko du Administrazio eskumendunak emandako lizentzia jaso eta hurrengo 15 egunen barruan.
 - Udalerrri bakoitzean Arriskutsuak izan daitezkeen animalien Erregistro bat egongo da, espezieen arabera sailkatutakoa, eta bertan, gutxienez, jabearen datu pertsonalak, animalia identifikatzeko aukera emango duten animalia ezaugarriak, eta ohiko bizilekua. Gizakiekin batera bizi den edo bestelako egitekoak dituen ere adierazi beharko da (zainketa, babes, etab.).
 - A.I.D.A.-A.P.P.-ak bere bizitza osoan eragindako gertakariak, eta baita animalia jabe edo leku aldaketa, lagapena, galera, lapurreta, heriotza... Erregistroan jaso beharko dira. Halaber, agintari eskumendunak urtero eman behar duen eta animalia osasun egoera eta gaixotasunik edo bereziki arriskutsua bilaka dezakeen arazorik ez duela egiaztatzen duen animalia osasun ziurtagiria ere adierazi beharko da.
 - Arriskutsua izan daitezkeen animalia lapurtu edo galtzen bada, titularrak gertakari horren berri eman beharko dio arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroko arduradunari, gertaeraren berri izan eta, gehienez, 48 orduko epea pasatu baino lehen.
 - Arriskutsua izan daitezkeen animalia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste udalerrri batera lekualdatzeko, betiko edo hiru hilabetetik gorako aldikadarako, jabeak ezinbestean egin beharko ditu dagozkion inskripzioak udal erregistroetan.
 - Autonomia Erkidego bakoitzean Informazio Erregistro Nagusia osatuko da, beste Administrazio eta agintari batzuek kontsulta dezaten, eta baita bidezko interesa egiaztatzen duten pertsonak ere (adibidez, ezaugarri horiek dituen animalia jakin bat eskuratzeko asmoa, etab.). Horretarako, Udal Erregistroko datuak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Erregistro Nagusira bidaliko dira, gertakizunaren berri jaso eta gero

Informazio gehiago

<https://www.amorebieta-etxano.eus/es>